



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

AÑO
2.020
URTEA

16. ORDENANTZA FISKALA

ORDENANZA FISCAL Nº 16

UDAL TASEN ETA PREZIO PUBLIKOEN EXENTZIOEI

ETA HOBARIEI BURUZKO ARAUTEGIA

REGLAMENTO SOBRE LAS EXENCIONES Y BONIFICACIONES

DE TASAS Y PRECIOS PUBLICOS MUNICIPALES



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



**16. ORDENANTZA LASARTE-ORIAKO UDAL-
TASEN ETA PREZIO PUBLIKOEN EXENTZIOEI ETA
HOBARIEI BURUZKO ARAUTEGIAREN
ERREGULATZAILEA**

**ORDENANZA Nº 16 REGULADORA DEL
REGLAMENTO SOBRE LAS EXENCIONES Y
BONIFICACIONES DE TASAS Y PRECIOS
PÚBLICOS MUNICIPALES EN LASARTE-ORIA**

ARGIBIDEA

1. Artikulua.- Arautegiaren Xedea.
 2. Artikulua.- Aplikatu beharreko
 3. Artikulua.- Kudeaketa.
 4. Artikulua.- .
- AMAIERAKO XEDAPENA**

INDICE

- | | |
|---|--|
| 5 | Artículo 1.- Objeto. |
| 5 | Artículo 2.- Exenciones y/o bonificaciones a |
| 7 | Artículo 3.- Gestión. |
| 8 | Artículo 4.- . |
| 9 | DISPOSICIÓN FINAL |



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



16. ORDENANTZA LASARTE-ORIAKO UDAL-TASEN ETA PREZIO PUBLIKOEN EXENTZIOEI ETA HOBARIEI BURUZKO ARAUTEGIAREN ERREGULATZAILEA

ORDENANZA Nº 16 REGULADORA DEL REGLAMENTO SOBRE LAS EXENCIONES Y BONIFICACIONES DE TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS MUNICIPALES EN LASARTE-ORIA

1. Artikulua.- Arautegiaren Xedea.

Honako Erregelamendu honen xedea jarraian adierazten diren Lasarte-Oriako udal-barrutiko tasen eta prezio publikoen ordainketagatik aplikatu beharreko salbuespenak eta hobariak finkatzea da, honako zerbitzu hauek emateagatik:

1.- Kiroldegi Munizipala:

1.Tarifa: Abonuak.

6. Tarifa: Igeriketako Ikastaroak.

2.- Udalaren Musika-Eskola.

3.- Kultur-etxea:

2.Tarifa: *Jarduerak (Dantza eta balleta).*

4.- Udal-Euskaltegia.

5.- Hilerriko Zerbitzuak.

6.- Zaborrak biltzeko zerbitzuak.

7.- Ingurunean mantentzeko Programa.

8.- Udako Txokoak

Aipatutako tasetarako eta prezio publikoetarako ezarritako salbuespenen eta hobarien onuradun izateko, Lasarte-Oriako udalerrian gutxienez ere 6 hilabeteko antzinatasunez errolatua egotea izango da baldintza.

2. Artikulua.- Aplikatu beharreko salbuespenak eta/edo hobariak.

1.- Udaleko tasa eta prezio publiko horiek pagatzetik salbuetsiak egongo dira Zerbitzu Sozialetako teknikariek kudeatzen, baloratzen eta tramitatzeko dituzten prestazio ekonomikoetakoren bat jasotzeko araututako eskakizunak betetzen dituen bizikide-unitate bateko pertsonak; ikus Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL), urtarrilaren 18ko 4/2011 dekretuaren bidez arautuak, edo Gizarteratzen Laguntzeko Diru-Laguntza Munizipalak (GLDLM).

2.- Ezarritako kuotaren pagamenduan % 75eko hoberia izango dute GLLen % 75etik 99ra bitartekoa jasotzeko eskubidea dutenek.

ARTÍCULO 1.- Objeto.

Es objeto del presente Reglamento fijar las exenciones y bonificaciones a aplicar por el pago de las tasas y precios públicos del término municipal de Lasarte-Oria que a continuación se señalan por la prestación de los siguientes servicios:

1.- Polideportivo Municipal:

Tarifa 1: Abonos.

Tarifa 6: Cursos de Natación.

2.- Escuela de Música Municipal.

3.- Casa Cultura:

Tarifa 2: Actividades (Danza y ballet).

4.- Euskaltegi Municipal.

5.- Servicios del Cementerio.

6.- Servicios de Recogida de Basuras.

7.- Programa Mantenimiento en el Entorno.

8.- Udako Txokoak

Para ser beneficiario de las exenciones y bonificaciones establecidas para las mencionadas tasas y precios públicos se requiere estar empadronado en el municipio de Lasarte-Oria con una antigüedad mínima de 6 meses.

ARTÍCULO 2.- Exenciones y/o bonificaciones a aplicar.

1.- Estarán exentos del pago de las citadas Tasas y precios públicos Municipales aquellas personas cuya Unidad de Convivencia reúna los requisitos regulados para la percepción de alguna de las prestaciones económicas gestionadas, valoradas y tramitadas por los Técnicos de los Servicios Sociales, véase Ayuda de Emergencia Social (AES), reguladas por el Decreto 4/2011, de 18 de enero, o Ayudas Económicas Municipales de apoyo a la inclusión (AEIS).

2.- Obtendrán una bonificación del 75% en el pago de la Cuota establecida, quienes tengan derecho al tramo de entre el 75 y el 99% de las AES.

3.- Ezarritako kuotaren pagamenduan % 50eko hoberia izango dute GLLen % 50etik 74ra bitartekoa jasotzeko eskubidea dutenek.

4.- Ez dute inolako hobariez gozatzeko eskubiderik izango familian guztira Gizarte-Larrialdietarako Laguntzen 4/2011 dekretu urtarrilaren 18koak erregulatzen dituenak baino gehiagoko diru-sarrerak dituztenek.

5.- Zergapekoek hilerriko tasan salbuespenaz gozatzeko eskubiderik ez dute izango baldin eta, 1. puntuari aipatutako prestazio sozialen jasotaile izateko eskakizunak betetzen dituzten arren, hileta-zerbitzu horiek aseguru-konpainia baten bitartez kontratatuak badituzte, kasu horretan aipatutako tasa ordaindu beharko baitute.

6.- Ondoren zehazten diren zerbitzu hauetan salbuespenen edo hobarien onuradun direnei zerbitzuetara joatea beharresten zaie, onura horiek mantenduko badituzte:

1.- Kiroldegi Municipalak:

6. Tarifa: Igeriketako Ikastaroak.

2.- Udalaren Musika-Eskola.

3.- Kultur-etxea:

2. Tarifa: *Jarduerak (Dantza eta balleta)*.

4.- Udal-Euskaltegia.

5.- Ingurunean mantentzeko Programa.

6.- Udako Txokoak

Zergapekoek zerbitzu horietan salbuespena edo hoberia izateko eskubidea galdu egingo dute baldin eta hilabete batean justifikatu gabeko % 25 asistentzia falta baino gehiago izaten badituzte, kasu horretan dagokien tasa ordaindu beharko baitute.

7.- Tributuzko edo bestelako edozein kontzepturengatik udaleko ogasunaren zordun diren bizikide-unitateek ez dute inolako hobariren edo salbuespenen eskubiderik izango; non eta langile sozialaren txosten bat ez dagoen, salbuespenazko zirkunstantziengatik baldintza hori betetzetik salbuets daitezkeela dioena.

3.- Obtendrán una bonificación del 50% en el pago de la Cuota establecida, quienes tengan derecho al tramo de entre el 50 y el 74% de las AES.

4.- No tendrán derecho a bonificación alguna quienes tengan unos ingresos familiares totales que superen los regulados por el Decreto 4/2011, de 18 de enero, de Ayudas de Emergencia Social.

5.- No tendrán derecho a exención en la Tasa del cementerio aquellos contribuyentes que, aún reuniendo los requisitos para ser perceptores de las prestaciones sociales referenciadas en el punto 1, tengan contratados dichos servicios funerarios a través de una Compañía aseguradora; en cuyo caso deberán abonar la referida tasa.

6.- Aquellos beneficiarios de las exenciones o bonificaciones que disfruten de los servicios que a continuación se detallan se les exige la asistencia a los mismos para mantener dichos beneficios:

1.- Polideportivo Municipal:

Tarifa 6: Cursos de Natación.

2.- Escuela de Música Municipal.

3.- Casa Cultura:

Tarifa 2: Actividades (Danza y ballet).

4.- Euskaltegi Municipal.

5.- Programa Mantenimiento en el Entorno.

6.- Udako Txokoak

Perderán el derecho a bonificación o exención en estos servicios aquellos contribuyentes que presenten más de un 25% de faltas de asistencia en un mes sin justificar, en cuyo caso deberán abonar la tasa correspondiente.

7.- No tendrán derecho a ninguna bonificación o exención aquellas unidades convivenciales que sean deudoras de la Hacienda municipal por cualquier concepto tributario o no; salvo que exista un informe del trabajador social que por circunstancias excepcionales se les pueda eximir del cumplimiento de dicha condición.

3. Artikulua.- Kudeaketa.

1.- Salbuespenak eta hobariak onuradunekin sortutako matrikula baten bidez kudeatuko dira. Matrikula hori hilero eratuko da, eta honako erregelamendu honetan jasotako tasak eta prezio publikoak ordaintzetik salbuetsiak gertatu diren subjektu pasiboez osatua izango da.

2.- Dagokion salbuespena edo hobaria lortuko badu, subjektu pasiboak nahitaez aurkeztu beharko du horretarako eskabidea, aipatutako laguntzak (GLL eta GLDLM) jasotzeko aginduzkoa den dokumentazioarekin batera.

3.- Hil bakoitzaren 30a baino lehen, eta Zerbitzu Sozialetako teknikariek beharrezko txostena eginda, Alkatetzak dagokion dekretua emateari ekingo dio.

Ebazpena baiezkoa baldin bada, honako araudi honen xede diren eta zergapetzeko egintza oraindik sortu gabe duten tasei eta prezio publikoei bakarrik eragingo die.

Subjektu pasiboaren egoera sozioekonomikoan inolako aldaketarik gertatu ezean, salbuespenaren edo hobariaren erakitzzea automatikoki urteroko balioz luzatua geratuko da.

4.- Halaber, subjektu pasiboak obligatuak egongo dira kargapeko jardueren ariketan gertatzen diren arlo fisiko, ekonomiko edo juridikoko aldaketak jakinaraztera, baldin eta eragina badute horretarako sortutako matrikulan sartzea edo ez sartzea erabakitzeko konputatuak izateari dagokionez. Aldaketa horiek hurrengo hilabetetik aurrera izango dute eragina.

5.- Emaitzako matrikulan datuak sartzea edo edota jasotakoak kentzea edo aldatzea ekintza administratibotzat joko da, eta kargapeko kontzeptu bakoitzerako dagoen zergapekoen eroldari eragingo dio.

ART. Artículo 3.- Gestión.

1.- Las Exenciones y bonificaciones se gestionarán a partir de la creación de una matrícula de beneficiarios. Dicha matrícula se formará mensualmente y estará constituida por los sujetos pasivos que han resultado eximidos del pago de las Tasas y precios públicos recogidos en el presente reglamento.

2.- Para la obtención de la exención o bonificación correspondiente, el sujeto pasivo estará obligado a presentar la correspondiente solicitud junto con la relación de documentación prescrita para la percepción de las ayudas mencionadas (AES y AEIS).

3.- Antes del día 30 de cada mes, y debidamente informado por los Técnicos de los Servicios Sociales, se procederá a dictar el correspondiente Decreto de Alcaldía.

En el caso que la resolución sea positiva, afectará solamente a las Tasas y precios públicos objeto de la presente normativa cuyo hecho imponible no se haya devengado todavía.

Salvo que se produzca alguna variación en la situación socio-económica del sujeto pasivo, la concesión de la exención o bonificación quedará prorrogada automáticamente con carácter anual.

4.- Asimismo los sujetos pasivos estarán obligados a comunicar las variaciones de orden físico, económico o jurídico que se produzcan en el ejercicio de las actividades gravadas y que tengan trascendencia a efectos de su computación para la determinación de su inclusión o no en la matrícula creada al efecto. Dichas modificaciones tendrán efectos a partir del mes siguiente.

5.- La inclusión, exclusión, o alteración de los datos contenidos en la Matrícula resultante se considerará acto administrativo y afectará al padrón de contribuyentes que exista para los distintos conceptos gravados.

6.- Eskaerei eta dagozkien agiriei harrera ematea, bai halaber zergapekoari laguntza eta informazioa ematea, Udaleko Erregistro Orokorrak egingo du. Kudeatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak Zerbitzu Sozialetako teknikariek izango dituzte, eta hark matrikulan sartuta dauden subjektu pasiboei edozein unetan eskatu ahalko die beren egoera erreala ezagutzea ahalbidetuko dien edozein datu edo dokumentu. Zehazki, departamentu horri dagokio eskaerak tramitatzea, matrikula eratzea eta jendaurrean ikusgai jartzea, errekursoak eta erreklamazioak ebaztea eta orobat zergapekoa urgaztea eta informatzea honako erregelamendu honetako gaiei dagokienez.

7.- Baldin eta subjektu pasibo batek erregelamendu honetan ezarritako baldintzetariko edozein betetzen ez badu, galdu egingo du hemen ezarritako salbuesenez eta hobariez gozatzeko eskubidea, eta bere egoera sozioekonomikoa aldatu zitzaion unetik likidatu behar izan zituzkeen kuota guztiak ordaindu beharko ditu; era berean, horretarako indarrean dagoen araudian erregulatutakoaren arabera santzionatua izango da.

8.- Erregelamendu honetan jaso gabeko egoera batean dagoen edozein herritarrek eskatu ahalko du bere egoera balora dezatela Zerbitzu Sozialetako teknikariek, Udaleko Salbuetsien Erroldan sartu behar den ala ez ebazteko.

Alde horretatik, ulertzen da onuradun direla subjektuak zeini egotz baitakizkieke, omisioaren erruz, administrazioko jardunak.

4. Artikulua.-

Eskabidearen datuak beteta eta 3.2. artikuluan aipatutako agiriekin batera, Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko da.

6.- La recepción de las distintas solicitudes y de la documentación respectiva, así como la asistencia e información al contribuyente, la efectuará el Registro General Municipal. Las facultades de gestión y control corresponderá a los Técnicos de los Servicios Sociales, el cual en cualquier momento podrá exigir a los sujetos pasivos incluidos en la matrícula que faciliten cualquier dato o documento que permita conocer su situación real. En concreto corresponde a dicho departamento la tramitación de solicitudes, confección y exposición al público de la matrícula, resolución de recursos y reclamaciones e igualmente actuaciones de asistencia e información al contribuyente referida a las materias del presente reglamento.

7.- Aquel sujeto pasivo que incumpliera cualquiera de las condiciones establecidas en el presente reglamento perderá los derechos de exención y bonificación aquí establecidos, debiendo proceder al abono de todas aquellas cuotas que le correspondía haber liquidado desde el momento en el que se cambió su situación socio-económica; asimismo será sancionado de acuerdo con lo regulado en la normativa vigente al efecto.

8.- Cualquier ciudadano que se encuentre en una situación no contemplada en este reglamento, podrá solicitar que la misma sea valorada por los Técnicos de los Servicios Sociales con el objetivo de determinar su inclusión o no en el Padrón de Exentos Municipal.

En este sentido, se entiende que son beneficiarios los sujetos a quienes motivadas por su omisión sean imputables las actuaciones administrativas.

ARTÍCULO 4.-

La instancia de solicitud cumplimentada y la documentación referida en el artículo 3.2, deberá ser presentada en el Registro General del Ayuntamiento.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, zeinen atal osakide bait dira bere Eranskinean bildutako ehunekobesteen koadroa eta tarifa, behin betiko izaeraz onetsi zuen Udalbatzarrak 1998(e)ko azaroaren 21(e)an egindako osoko bilkuran, 1999(e)ko urtarrilaren 1etik aurrera sartu zen indarrean, eta bere azken aldaketa 2019(e)ko azaroaren 4(e)an onetsi zen, 2019(e)ko urtarrilaren 1ean sartu da indarrean eta horrela segituko du harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

KONTUHARTZAILEAK

DE

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza, de la que son parte integrante el cuadro de porcentajes y la tarifa contenidos en su Anexo, quedó aprobada definitivamente por el Pleno de la Corporación celebrado el día 21 de noviembre de 1998, entró en vigor el 1 de enero de 1999, y su última modificación aprobada el 4 de noviembre de 2019 entra en vigor el 1 de enero de 2020 y así seguirá hasta que se acuerde su modificación o derogación.

ALKATEAK

IDAZKARIA



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO